



# HERNANIKO EURONET 50/50

PROIEKTUAREN 3. BULETIN ELEKTRONIKOA



## IKASTURTE HONETAN ERE EURONET 50/50 EKIMENEAN PARTE HARTZEN ARI GARA

Aurreko 2 ikasturteen antzera, 2020/2021 ikasturtean ere gogoz heldu diogu ikastolan energia arduraz eta zentzuz erabiltzea bultzatzen duen egitasmo honi. Jakingo duzuen moduan, iaztik Urumea ikastolak eta Txirrita herri-eskolak ere parte hartzen dute Hernaniko Udalak lagundutako Euronet 50/50en eta aurrezpen garrantzitsuak lortu ditugu guztion elkarlanari esker. Elizatxo ikastolaren kasuan, adibidez, **4.187,6€ aurreztea lortu dugu** proiektu honetan parte hartzen dugunetik hona (horren erdia zertara zuzendu ikastolan erabakiko dugu eta beste erdia Udalak gure eraikinetako energia-inbertsioren bat egitera bideratuko du) eta aurki adostuko dugu kopuru horrekin ea zer nolako hobekuntza egin ditzakegun.



Aurrekoaz gain, **udazkenean zehar berriz ere gela guztietako tenperaturak neurtu ditugu** eta gomendatzen diren erosotasun termikoko tenperaturekin bat datozen edo ez egiaztatzeko aukera izan dugu. Lan guztiak garatzeko orduan ikasleek tresna ezberdinak erabili dituzte; hala nola: aurreko ikasturtean Udalak banatutako termometroak eta datuen bilketarako zein aurrezpenaren kalkulurako diseinaturako jarraipen-orriak. Beste egiteko bat energia aurrezten jarraitu eta ikastolan energiaren erabilera arduratsua bultzatzeko helburuak nahiz ekintza zehatzak barneratuko dituen **ekintza-plana bat diseinatzeko pausoak** ematea izan da. Horretarako, 3. Zikloko ikasleek formulario elektronikoa bat erabili zuten eta 42 izan diren osatutako formularioak. Une honetan emaitzak aztertzen ari gara eta horiek izango dira ekintza-planaren edukia adosteko oinarria.

## KLIMA-ALDAKETA JOLASAREN BIDEZ LANDU DUGU

Lauhileko honetan zehar "**Ipar Poloa salbatzera goaz!**" izeneko joko kooperatiboaz gozatzeko aukera izan zuten ikasleek. Jokoaren 4 pertsonaia nagusiak baliatuz (hartza polarra, krilla, itsas txakurra, pinguinoa) ikasleak taldetan banatu genituen eta taldean egindako elkarlanari esker, euren izotz-zatitik helmugara (iglu batek irudikatzen zuena) heltzea zen helburua. Horretarako, baina, galdera eta froga ezberdinak gainditzea ezinbestekoa zen! Galderek eta frogak klima-aldaketari aurre egiteko jarduerekin zerikusia zuten (tartean, energiaren aurrezpenarekin eta kudeaketa egokiarekin lotura zutenak ere bazeuden).



## HURRENGO URRATSAK: EKINTZA-PLANA ETA KONPONBIDEAK PROPOSATZEA

Euronet 50/50 ekimenak proposatzen duen metodologiari jarraituz, ondorengo urratsak falta zaizkigu aipatu ekimena borobiltzeko:

- Elizatxo ikastolako energiaren ekintza-plana diseinatzea.
- Ekintza-planean jasotako ekintza bakoitzaren lehentasun-maila adostea.
- Proiektua martxan jarri zenetik hona lortutako emaitza nagusiak komunikatzea.
- Aurreztutako diruarekin zer egin erabakitzea (inbertsio txikia suposatzen duten neurrien proposamena, jokoak, etab.).



